

Kostuen egiturak

Proiektu hau aurrera eramateko, kostuak ondo ulertu behar ditugu. Gure gastu nagusiak teknologiarekin lotuta daude, adibidez aplikazioaren mantentzea, zepoak edo segurtasun-gailuak erostea eta garajeetan jartzea. Horrez gain, langileak, iragarkiak, aseguruak, elektrizitatea eta app ordainketak ere kontuan hartu behar ditugu.

Gure kostuak honela sailkatzen dira: finkoak eta aldakorrak. Finkoak, erreserben fluxua kontuan hartu gabe ezinbestekoak direnak, bulegoko alokairua, langile egonkorren soldatak, aseguruak edo software-lizentziak. Aldiz, kostu aldakorrak erabileraren edo erabiltzaileen kopuruaren arabera dira, hala nola, zepoak muntatzeko aldizkako kontratazioko teknikariak, gailuen energia-kontsumoa edo aparteko materialak erostea, eskaera handia badago.

Gainera, kostuak bi motatan jarri ditzakegu: zuzenekoak eta zeharkakoak. Zuzeneko kostuak zerbitzuarekin zuzenean lotuta daude. Adibidez, garajeetan gailuak jartzen dituen langileen soldatak eta materialak. Horiek gabe, zerbitzua ezin litzateke eskaini. Beste aldetik, zeharkako kostuak ez dira zerbitzu jakin batekin zuzenean lotuta. Adibidez, bulegoko langileen soldatak, bulegoa alokatzea edo bankuko interesak.

Kostu hauek kontrolatzea oso garrantzitsua da. Horrek prezioak hobeto finkatzen eta gastuak estaltzen laguntzen digu, baita irabaziak sortzea ere. Gainera, jakiteak non aurreztu edo hobetu daitekeen laguntzen digu, proiektua errentagarria izateko.

Hona hemen taula bat gastuak zehazteko eta bisuala izateko.

Kostu Motak	Kontzeptuak	Hileko Estimazioa
Finkoak	Bulegoko alokairua Langile finkoenen soldata Aseguruak	500 € 2000 € 100€
Aldakorrak	Ordezko Piezak Energia eta Mantentze - Lanak Teknikariak aldi baterako	300 € 100 € 200 €
Zuzenak	Zepoen instalazioa Zepoen materiala	500 € 1000 €
Ez-zuzenak	Adminiztrazioa eta zuzendarita Alokairuak eta zerbitzu orokorrak Mailegu interesak	800 € 500 € 200 €